

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Emakumeak, lehen aldiz, Ganbara Saskibaloia Taldean

Andoingo klubak lau talderekin abiatu du denboraldia. Infantil, kadete eta jubenil mailatan lehiatzen ari dira / 12-13

Eskatu **ticketa** azpiegitura hobeak izateko. **BAI.**

Eskatu TicketBAI, etorkizuneko erronkei aurrea hartuko dien Gipuzkoa bat eraikitzeko.  
[gipuzkoa.eus/ticketbai](http://gipuzkoa.eus/ticketbai)

**TicketBAI**  
Gipuzkoako Foru Erkidegoko Administrazioa



Maria Lesaca eta Markel Carmona, Sarobe arte eszenikoen gunean. AIURRI

# “Jendartearen hutsuneei erreparatzen laguntzen digu Markelek”

**MARIA LESACA** MARKELEN AMA ETA AUERRERA MARKELEKIN ELKARTEKO KIDEA Adin eta gustu guztiei begirako asteburua prestatu du Aurrera Markelekin elkarteak: hilaren 18tik 20ra bitarte, elkartasun keinuz beteko da Egape Ikastolako aterpea

aldi, guztiek agertzen dute prestutasuna. Oso eskertuta nago beti urnietarrekin. Oro har, data kontuengatik kenduta, proposamen ororen aurrean jaso dut herritarren partetik baiezkoa. **Era berean, antolakuntzan ez ezik, prestatutako ekitaldietan, herriko eragileek ere hartuko dute parte.**

Beti kontaktzen dugu urnietarrekin. Inklusioa lantzen da gurean eta hainbat lekutan hartzen dugu parte, besteak beste, Donostiako Eureka konpartsan. Hala, espazio askotan gaudenez buru-belarri, Markelen omenez zerbait egitean, jende askoren erantzuna jasotzen dugu. Ereiten duenak jasotzen omen du.

**Buruhauste handiak ekarri al dizkizue asteburu osoko plangintza antolatzea? Guztia ekintzez bete duzue...**

Eta ez genituelako ordu gehiago, bestela... (barreak)! Xabier Salillasek 48 ordu egingo ditu kirolean, Markelen alde. Hori horrela, modu batera edo bestera, bera laguntzeko antolatu ditugu ekintzak. Oso ondo antolaturiko ekipoa gara. Hortaz, ez zaigu batere kostatzen horrelakoak lotzea. Egape Dantza Taldeak egingo du irekiera-ekitaldia, eta, jarraian, pintxo-potea egongo da, jendea batu dadin. Musikari ekingo diogu ondoren, gazteei begira. Orduategiak mugatu egiten gaitu, bizilagunak errespetatze aldera. Dena dela, txandaka antolatu gara antolatzailerako taldekoak, uneoro, baita gauean ere, konpainiarekin egon dadin kirolaria. Larunbatean, goizeko 10:00etan hasiko da egitaraua, haurrei zein nerabeei zuzenduta: hala nola kirol kooperatiboak, puzgarriak... Behin hori bukatuta, paella herrikoia izango dugu, solidariora, bertaraten den orok ekarpena egiteko. Bazkalostean, txikienei (14 urte bitarte, gutxi gorabehera) begirako ikuskizuna ekarri dugu Eureka kideekin elkarlanean, Disney-eko pertsonaia ezagunekin.

Hariari tira egiten jarraitzeko, afari-merienda solidarioa egingo dugu, kontzertuak hasi baino lehen. Tartean izango da The Roristak urnietar taldea. Talde ezagun bat ekartzeko nahia daukagu, baina oraindik ez dago ziur. Eta ba al da modu hoberik igandea hasteko, zumba dantzatzeko baino? Buruhandiak eta erraldoiak, sagardo-dastaketa eta herri kirolak egongo dira,

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Elkartasunez blaituko da azaroa Urnietan. Izan ere, Aurrera Markelekin elkarteak askotariko hitzorduz jositako asteburua prestatu du, hilaren 18tik 20ra bitarte, GNAO1 gaixotasunaren harira, babesa lortzeko. Egape ikastolako instalakuntza izango dira ekintzak, Xabier Salillas atletak egingo duen erronkaN laguntzeko: 24 ordu bizikletan eta 24 ordu korrika, zintan, guztia Markel Carmonaren alde. Ilusioz bezain urduritasunez bizi ditu aurreko egunak Maria Lesaca Markelen amak eta elkarteko kideak.

**Makina bat ekintzaz bete du Urnietan “Aurrera Markelekin” elkarteak azaroaren 18tik 20ra bitarteko asteburua. Herriko hamaika eragile eta tokiko saltokik babestu dute, gainera.**

Hori da. Ostiral arratsaldetik hasi eta igandera bitarte izango gara Egape Ikastolan, elkarteari elkartasun keinu gisa. Gure ekintzetan, urnietarrek parte hartzea ahalegintzen gara beti. Mundu guztiak ezagutzen du Markel, baita gure elkarte ere; hala, laguntza eskatzen dudana

## GNAO1 gaixotasuna

Burmuinean oso ugaria den eta neurona-seinaleen transmisioan inplikatur dagoen proteina mota baten fabrikatzailea da GNAO1 genea. Hori horrela, gorputzeko beste ataletarako seinale-bidalketan parte hartzen dute aipatu proteinek, gorputzak eseri, altxatu, korrika egin, ibili edo hitz egin dezan.

Albo-kalteak izan ditzakete genea aztoratuarekin jaitzen diren haurrek: ulermenerako gaitasun eza, hitz egiteko nahiz ibiltzeko zailtasunak, hipotomia (muskulo ahulak), espastizitatea (muskuloen zurruntasuna)...

gero. Eguerdia partean, kantatore bat igoko da oholtzara, eta, jarraian, Wu Tao-k erakustaldia egingo du. Hasi bezala, Egape Dantza Taldearen ikuskizunarekin biribilduko dugu asteburua.

**Asteburu horri buruz hitz egitean, ezin izen bat aipatu gabe utzi: Xabier Salillas iron man-a.**

Orain urte batzuk komentatu zigun Salillasek Markelen alde egin nahi zuela. Bere proposamena 72 ordu (24 ordu igerian, 24 ordu bizikletan, 24 ordu korrika), baina ez genuen batere argi ikusten, erronka handia dela iruditzen zaigulako, eta, era berean, konpainia egitea garrantzitsua zelako. Gainera, pandemiaren kontuarekin atzeratzen joan gara, gaurdaino. Izan ere, horrelako tamainako elkartasun hitzordu bat antolatzean, garrantzitsua da jendeak parte hartzea. Hitzordu polita espero dugu, jendeak goza dezala.

**"IKUSGARRITASUNA EMAN BEHAR DIEGU GAIXOTASUN ARRAROEI, BABESA BEHAR DUGULAKO"**

**Aldez aurreko lan handia eskatzen du ekimenak. Nola bizi dituzue ekitaldi horren aurreko egunak?**

Estresarekin. Ezkontza bat antolatzearen pareko da! Azken orduko kontuak korrika eta presaka lotzen amaitzen duzu (barreak)! Ilusioekin eta urduritasunez bizi dugu. Bide bereetik, horrelako ekitaldiekin, Markelen kasua ezagutzera ematen dugu: EAeko kasu bakarra da; Espainiako Estatuan 12 daude egoera berdinean, eta, nazioartean, guztira, 150 pertsona. Ikusgarritasuna eman behar diogu gaixotasun arraroei, babesa behar dugulako. Gaixotasuna geldiaraziko duen sendagai baten bila gabiltza. Izan ere, prozesuan laguntzeko medikamentuak daude, baina ez dira nahikoak.

Espainiako familiekin elkarteak sortu dugu, harremanak saretzeko; autonomia erkidegokoa egiten dugu lan eta lorpen handiak eskuratzen ari gara oso denbora tarte laburrean.

Une honetan, ikerketa-lerro bat martxan dago, Vladimir Katanayev irakaslearen laborategian, Genevako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean: genearen mutazioak aztertu eta mutazioak patologikoen funtzio biokimiko akastuna zuzenduko duten botikak identifikatzen saiatuko da. Horregatik, banatu egiten dugu diru-bilketetan lortutakoa: batetik, terapiara bideratzen dugu zati bat; eta, bestetik, ikerketarako (azken horretan, gehiago inbertitu dugu, aurrerapausoak emateko).

**Nola bizi ditu Markelek elkartasun keinuak?**

Ilusioa handiarekin, poz pozik, baietz, Markel? (Semeari begira). Esaiozu, Markel: "Etorri eta ateratzen zaidan irriarekin ikusiko duzu zeinen ongi pasatzen dudana!". Ederki pasatzen du, musika dagoen tokietan.

**Eguneroko borrorak aurrerapausoak ekarri al ditu egoerari dagokionez?**

Jakina, horregatik jarraitzen dugu. Markelek, egun, 16 urte ditu, eta bere bizitzako lehen hilabeteetatik damakigu lanean. Oso eraginkorra da berarekin

**"IKASGAIETAN LANTZEN DENETIK HARAGO, GIZATASUNA ERAKUSTEN DIGU MARKELEK"**



Markel Carmona Lesaca urnietar gaztetxo.

lan egitea, bere mugekin, baina modu eraginkorrean erantzuten baitu. Aurrerapausoak egunero egiten dugun lanagatik eskuratzen ditugu: egunero-egunero, sorpresa bat ematen digu Markelek. Berak ematen digu guri aurrera jarraitzeko arrazoia. Orain urte eta erditik, ernatu egin da bere gaixotasuna, areagotu egin da. Pixkanaka goaz, gorabeherekin, baina, aurrera. **Korapiloak korapilo, bidean, izan dituzue lorpenak. Bat aipatze aldera: zortzi urte Hezkuntza Sailarekin "borrokan" egon ondoren, Markelek eskola arruntean ikasteko aukera du.**

Eta oraindik jarraitzen dugun, borrokan. Inklusioaren alde egiten dugu lan, Markelek ez baitu zertan jendartetik at egon, isolatuta, eta, are gutxiago, hezkuntzatik. Gainerako ikasleen balio bera eduki beharko luke, eskubide berberak. Gu gara, jendartea, ez dakigunak egoera hori kudeatzen; nik beti errepikatzen dut: lehenik eta behin, ikas dezagun guk, gu baikara beren integrazioan oztupoak ipintzen ditugunak askotan. Ikasgaietan lantzen den horretatik harago erakusten digu Markelek, gizatasuna. Hala, lanean jarraitzen dugu, ezezkoa, jada, badaukagulako.

**Zuen eskakizunez, egokitutako erosketa-orgak sortu ditu Eroskik.** Jendarte honen hutsuneei erparatzen laguntzen digu Markelek. Elkartean, terapietz eta ikerketaz gain, egunerokoa bi-

zigarriagoa egiten laguntzen dugu. Horren adibide da Eroskiko erosketa-orgen kasua. Garberarekin harremanean, proiektua aurkeztu genuen, eta baiezkoa jaso genuen, erraztasun handiekin, gainera. Etengabean, hazten ari den merkatal zentroa da; bada, berritzailea izateko ahaleginean, gutxieneko beharrak asetuta eduki behar dira, herritar guztientzat: parkeak, komuna...Baita erosketa-orgak ere.

Pandemiarekin etenaldia egon zen, baina, behin egoera lasaituta, berriro ere martxari ekin zioten bertako eragileek. Arrakasta ikusita, proiektua zabaltzea erabaki da: Garberan egoteaz gain, Espainiako Estatuko hainbat Eroski salguneetara iritsiko da. Zoragarria izan da, keinu txiki batetik, gauza handi bat etorriko delako.

Ildo beretik, esan kaleko jendeak beti erakusten duela elkartasuna. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, instituzioekin, laguntza bermatu baino, beti, oztupoak ipintzen dituztelako. Erakunde publikoek egiten ez dutelako egiten dugu guk egiten duguna.

**Bide-urratzaileak al zarete?**

Nire ustez, bai: beti diot, ezjakintasun handia dago; hortaz, erakutsi egin behar diogu jendeari.

**Egitarau oparoaren ondoren, bihar-munean, zer?**

Atsedean eguna izango da, baina hutsune handi bat sentituko dugu. Aurreko asteetan, hara eta hona gabiltzalako, topera. Era berean, lanean jarraituko dugu.

**ELKARTASUN EKITALDIA**

**Markelekin**

**IRON MAN XABIER SALILLAS 24 ORDU BIZIKLETAN ETA 24 ORDU ZINTAN**

**PAELLA TXARTELA 10€**

**DISNEY TXARTELA 3€**

**DJS ETA KONZERTUAK 3€**

**TOKIA: EGAPE URNIETA IKASTOLA AZAROAK 18, 19 ETA 20. JARDUERAK EGINGO DIRA ETA IRABAZIAK GNAO1 GAIXOTASUNAREN IKERKETARA ETA TERAPIETARA BIDERATUKO DIRA**

**Azaroak 18**

18:00 IREKIERA EGAPE DANTZA TALDEA  
18:30 PINTXO POTE URDAIAZPIKO HANKAREKIN  
20:00 DJ MAIK  
21:00 DJ KATXORRO  
22:00 DJ ATXUKARRO

**Azaroak 20**

10:00 ZUMBA PETTIN VIRGINIA  
11:00 ERREALDGI TXIKIAK ETA BURUAKINAK  
12:00 HERRI KIROLAK  
13:00 SAGARDO DASTAKETA  
13:00 ABAR ANTILLA KONZERTUA  
16:00 URNIETAKO WARRIORS WU TAO  
18:00 EKITALDIAREN ITXIERA EGAPE DANTZA TALDEA

**Azaroak 19**

10:00 KAPOBIRA ERAKUSKETA, HAURRENTZAKO JOELASAK, EUSKAL KIROLAK, PUZGARRIA  
14:00 PAELLA HERRIKOSA  
17:00 DISNEY IKUSKIZUNA  
19:00 OGITARTEKO SOLIDARITOA  
21:30 DRAVERNUE KONZERTUA  
23:00 THE ROBERTAK KONZERTUA

**PAELLA TXARTELEN SALMENTA 10€. BAR EGUR, BAR GURIA, LEKAR ESTILISTAS (Urnieta) EUREKA (Errenteria)**

Hilaren 15era bitarte egongo da aukera tiketak erosteko. Kontzertuetarako zein ikuskizunetarako sarrerak unean bertan salduko dira.



Xabier Salillas hernaniarra. AIURRI

# “Dirua ematea da errazena, baina nik nahiago dut parte hartze zuzena”

**XABIER SALILLAS** KIROLARIA

Hanka zutarrak eta burua prest ditu. Azaroaren 18tik 20ra ‘Markel Aurrera’ ekimeneko protagonista izango da, 48 orduz ariko baita egurrean bi kirol diziplinatan

**Andoni Urbistondo** URNIETA  
Nor zaitugu Xabi?

Hernaniarra, egun etxegintzan lanean dabilena, eta martxako kirolaria aspalditik. Urteak egin nituen zerbitzari jardunean Guria tabernan, horregatik ezagutuko naute urnietarrek.

**Datozen azaroaren 18a eta 20a bitartean egingo den ‘Markel Aurrera’ ekimeneko protagonista**

**nagusietakoa izango zara. Nola zaude, proba horiek egiteko aste-bete falta denean?**

Urduri. Orain arte ez naiz gehiegi arduratu, baina eguna hurbiltzen ari den heinean handitu egiten da urduritasuna. Egurrean hasi arte izango da, noski. Neure buruari jarritako erronkarekin hasten naizenean urduritasun guztiak desagertzea espero dut.

**Pandemiak erdiz erdi hautsi du ekimena, baina oraingoan egingo da, ziur.**

Bai, dena prest geneukan 2020an, eta ezin izan zen egin. Beste ahalegin bat ere egin genuen, hurrengo astekoa baina lehen, baina muga batzuk indarrean zeuden oraindik, eta 2022ko hau izango da benetakoa. **Zer egin behar duzu zuk, zehazki?**

24 ordu bizikleta estatikoan, eta beste hainbeste martxa diziplinan, zinta batean. Igeriketean beste 24 ordu egitea pentsatu genuen hasieran, baina horrek espazio handia eskatzen zuen, azpiegitura berezia, eta igeriketa alboratzea erabaki zen. Bizikletako diziplina egingo dut aurrena, eta martxa bigarrena, hobeto ezagutzen dudalako. Ikastolan izango da, ostiraleko arratseko 18:00tan hasita (azaroaren 18an).

**Etenik gabe?**

Bai. Beno, komunera joateko bakarrik. Jan eta edan, dena ekinean ari naizela egingo dut, eta geratzen naizenetan beste boluntario batzuk hartuko didate lekukoa, etenik egon ez dadin.

**Ahalegin ikaragarria da.**

Beno, entrenamendu asko egin ditut, eta ahal izan dudan guztia prestatu naiz. Olinpiar martxak ez nau beldurtzen, baina bizikletak bai, ez daukadalako ohiturarik. Txikitari ibilia naiz, denok bezala, baina ondoren ez daukat eskarmentu handirik. Bizikletatik martxarako trantsizioari diot beldur apur bat. 24 ordu ariko naiz gihar eta artikulazio jakin batzuk zigortzen, atsedetik gabe, eta jarraian beste gihar eta artikulazio batzuk, beste 24 orduz.

**Zein entrenamendu egin duzu?**

Gehienez sei ordu aritu naiz, bai bizikletan, baita zintan martxa egiten ere. Ezin da 48 orduko entrenamendurik egin, eta beti daukazu buruan zalantza hori, gorputzak nola erreakzionatuko duen tamainako ahaleginaren aurrean. Ahalegin fisikoa eta mentala.

Burua prestatu dut, psikologo batekin, une zailetan aurrera egin eta ez etsitzeko, baina gerta liteke nekearen poderioz buruko kontrol hori galtzea. Medikatu bat edukiko dut alboan, uneoro, eta lasai nago.

Psikologiaren alorra aurrekoetan baina serioago prestatu dut.

**Etzegintzan ari zara lanean, 8-9 orduz egunero teiltatua. Nola moldatu zara, ordu libreak bilatzeko?**

Beste edozein herritar bezala: goizetan, lanera joan aurretik, eta lan jardunaldia bukatu ondoren.

**Urteak daramatzazu iraupen luze-ko probak egiten, bai korrika, baita martxa olinpikoan ere. Ez zara hasi berria.**

Hala da. Ez naiz bat-batean 48 orduko proba bat egingo duen ero bat. Espainiako selekzioarekin aritua naiz, Frantziako Txapelketetan parte hartu nuen ez aspaldi, 49 kilometro eta sei orduko proba batean... Kilometroak hanka zuztarretan gordeak ditut, dagoeneko.

**Antzeko beste elkartasun ekimenean parte hartutakoa zara, ezta?**

Bai. Gustukoak ditut. Errazena elkartasun ekimen horiek dirua ematea litzateke, baina nik nahiago dut modu honetan jendea erakarri eta haien ekarpen ekonomikoak biltzea. Nire esfortzu eta sakrifizioarekin laguntzea gustatzen zait, parte hartze zuzena edo aktiboa izatea. Wukro herriaren aldeko ekimena egin nuen 2013an, 700 kilometro zazpi egunean; 2014an Sant Vicenç dels Horts herrian, Katalunian, esklerosi anizkoitzaren alde; 2017an Juleneren alde aritu nintzen, Astigarragan, gaixotasun arraroak ikertzeko ekimena, eta 2018an Pausoka elkartaren alde. Orain ‘Markel Aurrera’ ekimenean parte hartuko dut.

**Ez da lehiaketa bat, ez duzue errekorrik bilatzen, ‘Markel Aurrera’ ekimenarentzako sosa biltzea baizik. Horrek laguntzen al du?**

Noski, ekimen honen helburua ez baita nik marka bat edo beste egitea, jendeak egingo diren aktibitateen bitartez ekimenean laguntzea baizik.

**Zer nolako harremana duzu Markelekin?**

Tabernan eduki nuena, batez ere. Pozten nau bera irribarretsu ikustea, pozik sumatzea. Indarra ematen dit berarentzat ekimenak egitea, familiari laguntzea. Markeli ‘hemen nago’, edo ‘hemen gaude’ esatea.

**Ze mezu emango zenieke urnietarrei?**

Ni bezalako ero bat tamainako ekimena egiteko prest badago, Markel nahiko gutxi ezagututa, ez ote dira beste herritarrek bere laguntzatxoa, aletxoa jartzeko gai izango, laguntza behar duen ume eta familia bati laguntzeko? Azkenean aiez ale egiten da masa, taldea, eta hori behar dugu.

**“INDARRA EMATEN DIT MARKELENTZAT EKIMENAK EGITEAK, FAMILIARI LAGUNTZEAK”**

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## "Fanzineak arazoaren erroa aztertzen du"

**JONE PEREZ** GIZARTE LANGILEA ETA FANZINEAREN SORTZAILEA

24 urteko gazteak Txileko matxinada bizitu zuen lehen lerrotik. Hori guztia fanzine formatuko aldizkarian txertatu nahi izan du eta bestelako ikuspuntua eman dio

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Gizarte laneko unibertsitate-gradua egin zuen Donostian, eta, ikasketen harira, Erasmus programan parte hartuta Txilera bidaiatu zuen hilabete batzuetarako. Bertan, bestelako egoera sozio-politikoak aurkitu zuen: jendartearen altxamendua, desadostasuna eta haserre. Urte pare baten buruan, jasotako informazioarekin eta argazkiekin fanzine bat egitea otu zitzaion, gaur arte. Jada hamaika fanzine eskatu dizkiote aurrealmentan, eta beste hainbeste erreserbatzea aurreikusten du.

**2019. urtean Txilera bidaiatu zenuen Erasmus programarekin, baina topatu zenuena herri baten etsipena eta haserre izan zen, ezta?**

Bai, hala da. Testuinguruan kokatzeko, uztailean bidaiatu nuen Txilera, baina urrian egin zuen eztanda matxinadak. Iritsi nintzenerako egoeraren larritasuna oso nabaria zen, baina, esan bezala, eztanda egun batetik bestera jazo zen. Metroaren prezioa igo zuen gobernuak (30 peso) eta horrek jendartearen leherrarazi zuen; horiek horrela, metroko sarrera-irteerak blokeatu zituzten. Horrek, herriaren eta gizartearen arteko talkari bidea ireki zion. Hori guztia eta gehiago, fanzinean dago ikusgarri.



Fanzinea eskuetan du Jone Perez andoaindarrak. AIURRI

**Beraz, prezioaren igoera izan zen jendartearen ezandarazi zuena?**

Gizarte eztanda hartan, oso lelo argigarria entzun nuen, behin baino gehiagotan: "Ez dira hogeita hamar peso, hogeita hamar urte dira". Herritarrek urteak zeramatzen erabaki eta neurri bidegabeak jasaten; hortaz, garrario publikoaren garestitzea egoera are jasanezinagoa bilakatu zuen.

Esan beharra dago gizarte eztanda hura antolatuta gabea eta bat batekoa izan zela. Horregatik, gerora, egin beharreko aldaketak nagusia Pinochetek ezarritako konstituzioa aldatzea zela erabaki zen. Duela aste

batzuk egin zen konstituzioaren erreferenduma hori guztiaren ondorio da.

**Fanzinean ikus daitekeenez, lehen lerroan egon zinen eta gizartearen haserre zure azalean bizitu zenuen. Bizipenak gordinak izan ziren?**

Manifestazioetan ohikoa zen jendea zauritua eta odoletan ikustea, baita gas negar-eragile artean ibiltzea edota balinekin jende zulatua ikustea ere. Tiroen ondorioz, herritar batzuek begia ere galdu zuten. Eraso horiek guztiak, munduan, zer esan handia eman zuten, erraz zabalitzen diren irudiak baitira.

**Egoera hark jendartearen zatitu ala batu zuela uste duzu?**

Politikoki pentsaera ezberdina dutenen artean ere, oinarrizko adostasun batera iritsi zirela esan genezake. Hots, egoeraren larritasuna aintzat hartuta, eskakizunak antzerakoak izan ziren, eta bakoitzaren ideologia oso ezberdina izan arren, agerrialdi batzuetan bat egin zuten. **Txileko egoeraren larritasunaz ari garenean, zer esan nahi duzu?**

Laburbilduta, ez dituztela baliabideak. AEBk ezarri zuen neoliberalismoak, gaur egun ere, gogor jotzen du eta, herritar xumeen artean, oso nabaria da. Esan bezala, ez dute baliabiderik, ez eta botere ekonomikorik egunean egunekoari aurre egiteko. Herritar ugari txirotasunean bizidirela esan genezake. Ez hori bakarrik, inflazioa handiaren ondorioz, herritarrek itotzen ari dira. Prezioek gora besterik ez dute egiten.

**Nolatan erabaki zenuen bizipen guztiak fanzine batean biltzea?**

Intentsitate handiko hilabeteak izan ziren, beraz, denbora behar izan nuen bizitako guztia neureganatzeko. Hori guztia asimilatuta, zera esan nion nire buruari: "Egoera historikoa bizitu dut, lehen pertsona eta herritarren azaletik. Zerbait egin behar dut". Hortaz, nire argazkilaritza zaletasuna eta, jasotako bizipenak uztartuta, fanzine bat egitea erabaki nuen. Batetik, formatu libreko aldizkari bat delako, eta, bestetik, askatasun handia ematen dizulako. Horrez gain, ez nuen editorial baten esku utzi nahi nire proiektu pertsonala. **Lan handia eskatzen duen proiektua garatu duzu. Laguntzarik izan al duzu prozesuan?**

Proiektuaren ideia nuen arren, lagunek bultzatu ninduten egitera. Esaterako, Ainhoa Marquez lagunak ezagutarazi zidan fan-

### Aurrealmenta

"Chile desperto" fanzinea 5 eurotan eskuragarri egonen da eta aurrealmenta prozesuan dago jada. Erreserba egin daiteke txilefanzine@gmail.com postaren edo @chilefanzine Instagramaren bitartez.

zinearen mundua. Oso eskertuta nago.

**Zer helarazi nahi izan duzu fanzinearekin?**

Irakurleak hausnarketara bultzatu nahi ditut. Hau da, bizigaren burbuilatik irten eta errealitate gehiago existitzen direla erakutsi nahi dut, gordinagoak eta ezberdinak.

**Zer du berezitik zure proiektuak eta zertan bereizten da ohiko hedabideengandik?**

Nire ustez, fanzineak arazoaren erroa gehiago aztertzen du. Izan ere, komunikabideek informazioaren bonbardaketa egiten dute, beraz, albiste asko oharkabean igarotzen dira. Informazioaz intoxikatzen gaituzte. Horregatik, nire fanzinean interesgarria izan daiteke, jasotako hausnartzeak eta egoera ikuspuntu pertsonalago batetik ulertzeko.

**Aurrealmenta prozesuari ekin diozu. Zer dela eta?**

Nire helburua ez da soilik saltzea, baizik eta interesa duen horrekin gaiaz hitz egitea, tratu pertsonalagoa eskaintzea eta iritziak elkartrukatzeko.

Gainera, fanzinea historikoki, medio konbentzionaletatik at, herritarrekin ideiak partekatzen tresna bat izan da, eta hori ekarri nahi nuen gaurkotasunera.

# Ekimen betean da C2ak kaltetutako plataforma

Aurreko larunbatean 400 lagunetik gora elkartu ziren Bastero Kulturgunean eskaini zuten hitzaldian. Eta asteazken goizean Gipuzkoako Batzar Nagusietan agerraldia egin zuten, Bide Azpiegituren batzordean

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

C2ak kaltetutako plataformako kideen ahotsa Batzar Nagusietara iritsi zen asteazkenean. Bide Azpiegiturako batzordean parte hartu zuen, euren ekimena aurkezteko. Test modukoa izan zen. Izan ere, joan zen iraillean, Udaletxean plataformaren mozioarekin bat egin zuten EH Bilduk, PSE-EEk eta Podemosek. EAJ-PNV abstenitu egin zen. Batzar Nagusietan, Gipuzkoako parlamentuan, babes horiek zenbateraino diren berdinak ikusteko eguna zen. Giro onean joan zen batzarra, eta modu pausatuan alderdi bakoitzak bere ikuspegia azaldu zuen.

EAJ-PNVk Gipuzkoako ikuspegia defendatu zuen, C2 egitasmoarekin "interes orokorra"ren alde egiten dela adieraziz. Konpromisoa agertu zuen zarata akustikoak sortzen duen arazoa gainditzeko. Funtsean, C2aren alde agertu zen interes orokorra argudiatuz.

Perez de Eulatek interes orokorra tokikora jaitsi zuen: "Andoaindarrak ez dira trafikoak sortzen duen arazoaren erantzuleak".

PSE-EEren interbentzioa izan zen nabarmenena. Plataformaren ekimenari harrera beroa egin zioten Andoaingo PSE-EEk eta Andoaingo alkateak. Batzar Nagusietan tonoa oso bestelakoa izan zen. Jorge Martin batzarkideak lehen interbentzioan hotz zuzendu zitzaion Perez de Eulatei: "Errespetua zor zaio plataformari eta kontutan hartuko dugu plataformako kideek diotena. Aztertuko dugu diotena". Bigarren interbentzioan galdera luzatu zuen plataformako kideei: "Zein alternatiba duzue 2011kako egitasmoaren aurrean?"

Perez de Eulatek Andoaingo mozioaren edukia gogorarazi zion: "2. puntuak dio birpentsatu egin behar dela Bazkardoko lotunea, eta Aldundiari egitasmoa geraraztea eskatzen dio".

EH Bilduk adostasuna eskatu zuten bertan ziren guztiei: "Eguneratu egin behar dira alternatiba guztiak, eta erabakia akordio zabalen bidez hartu behar da. Udalaren mozioa hor dago, eta erakundeen arteko errespetua egotea eskatzen dugu".

Elkarrekin Podemoseko Gonzalezek ere ulerker jokatu zuen Plataformarekin: "Ulertzen dut C2a geraraztea eskatzen duzuela. Ez ditzala egitasmo berriak egungo arazoak biderkatu".

PP alderdiak ez zuen batzordean parte hartu, baina alderdia Aldundiaren egitasmoarekin kritiko agertu da.

Asteazkeneko batzordea Basteroko aurkezpenaren ondoren iritsi zen. Aurreko larunbatean 400 lagun elkartu zen auditorioan, eta bertan zirenek Plataformaren ikuspegia jasotzeko aukera izan zuten. Batzar Nagusietan eta Basteron, bietan, C2ak sor ditzakeen galerez mintzatu zen Perez de Eulate.



Herri bilera deitu zuten Bastero Kulturgunean, aurreko larunbatean. AIURRI



Perez de Eulate asteazken goizean Batzar Nagusietan. BATZARNAGUSIAK

## GORA ETA BEHERA



### Merkatalguneen itxiera etengabea ematen ari da Andoainen

Olatz Olmedo ageri da argazkian, Ikelatz denda ezagunaren pertsiana jaisten. Kezkagarria da egoera, saltoki asko antzeratsu dabiltzalako. Udaletxearen atzealdean dago Ikelatz, Kale Nagusian. Argazkiaren sakontasunari erreparatuz, ondoan zegoen okindegia aspaldi itxi zen. Lokal huts bat da. Eta harago

dago Kutxabanken bulegoa. Pertsiana jaitsi dute eurek ere, eta haien bezeroek kale gorrian atera behar dute dirua. Egoera penagarria da, joan-etorrian jende asko igarotzen den puntuan.

Urteak eman ditu Olatz Olmedok Ikelatzen lanean, amaren lanbideari jarraipena emanez. Berak ere bizimodua bertatik aterako zuela pentsatzen zuen, duela ez asko. Merkataritzaren joerak eta digitalizazioak, kasu honetan, kaltegarri egin zaizkio Olmedori. Eta, azkenerako, hainbat hamarkadatarako ibilbideari amaiera eman behar izan dio. Urte zaila izaten ari da, merkataritzari erreparatuta.



# Zaintza-lanen azterketa, jendaurrean

Udaleko Berdintasun lansailak diagnostiko-lan bat egin du, eskuorri baten bidez zabaldu duena. Aurkezpena egingo dute, jendaurrean, ostegun honetan. 18:30ean izango da, Basteron

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Udaleko Berdintasun sailak martxoan zainketen diagnostikoa egitea erabaki zuen, III. Berdintasun Planean jasotakoari men eginez. Diagnostiko horretan Andoaingo datuak aztertu dira: zein zerbitzu eskaintzen diren, zaintzaileen egoera, amatasun motak... Eta, han, horren emaitza gisa, ondorio batzuk atera dituzte. Eskuorri batean bildu eta udalerrri osoan banatu dute. Helburua garaira egokitzea dela adierazi du Petri Romero zinegotziak: "Argi dago zaintza ulertzeko modua berri behar dugula, esparru ekonomikoan zein politikoan duen kokapena aldatu behar dugula, eta zaintza-lanak berrantolatu behar ditugula, hau da, zaintza-lanak demokratizatu behar ditugu, eta guztiok inplikaturako gaituzten bideak aztertu behar ditugu"

Emagin elkarteak egin du diagnostiko-lana eta beren arabera, etorkizunari begira lau



Udalerrri osoan zabaldu dute eskuorria. AIURRI

alderdi jorratu behar dira: aitortpen soziala eta politikoa lortzea, zaintza-lanak modu bidezkoagoan banatzea, autonomia eta agentzia sustatuko dituen arreta eskaintzea eta, azkenik, zaintzaileen bizi- eta lan-baldin-

tzak duintzea. Egindako lana jendaurrean aurkeztuko dute ostegun honetan, arratsaldeko 18:30ean hasiko den ekitaldian. Basteron, zaintza-lanen diagnostikoa eta etorkizunerako proposamena aurkeztuko dituzte.



Andoin Alvarez Lete, EH Bilduko alkategaia. AIURRI

## Alderdikideek Andoni Alvarezen hautagaitza berretsi dute

"Ilusioz eta erantzukizunez lana egingo dudala adierazi nahi diet Andoaingo herritarrei", adierazi du hautagaiak

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Hilabete batzuk atzera, Goikoplazan egin zuen agerraldian, Andoni Alvarez Lete EH Bilduko alkategaia zerrendaburu izateko borondatea erakutsi zuen. Koalizioaren barne-prozesua eman eta gero, ezustekorik ez da izan eta bigarren aldiz EH Bilduko alkategai izango da. Gogoan izan behar da, 2019ko hauteskundeean, 2.838 boto eskuratu zituela, garaipen argia lortuz. Oposizio buru aritu da geroztik, eta 2023ko maiatzaren 28ko hitzordurako bera izango da berriro alkatetzarako hautagaia.

**Andoni Alvarezen adierazpenak**

"Oinarriak proposatuta eta bozkatuta, neu izango naiz 2023ko Udal hauteskundetan hautagaia. Oso pozik eta eskertuta nago EH Bilduko oinarriarekin eta ilusioz eta erantzukizunez lana egingo dudala adierazi nahi diet Andoaingo herritarrei. Legealdi honetan argi geratzen ari da, Andoainek, lidergo berri bat behar duela. Udalak eta herritarrek norabide berean lan egingo duten lidergo partekatu bat, eta hori lortzen saiatuko naiz. Erroka itzela dugu esku artean baina guztiok batera lortuko dugu".

## GORA ETA BEHERA



### Larunbat arratsaldea eta gaua girotzeko ekimena

Salkin elkarteak dozenaka herrikide dantzan eta kantuan jarri zituen, kalez kale ibili zen DJ ibiltariarekin. 80ko hamarkadako musika gogoan hartuta, taberna askotan garai hartako giroan murgildu ziren. Muga eta Danenako zerbitzariak, esaterako, mozorrotuta aritu ziren lanean.





Egape Dantza Taldeko kideak, Zubitxo plazan egindako emanaldiaren ondoren . AIURRI

# Euskara kalera atera dute herritarrek

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte izango da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Hala, aurkezpen-ekitaldia egin zen joan den larunbatean, herriko kultur eragileekin batera

## Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ate-joka da Euskaraldiaren hirugarren edizioa, "hitzez egiteko garaia" dela aldarrikatzeko. Hori horrela Euskal Herriko makina bat txokotan, ospakizun hitzorduak antolatu dituzte hizkuntza ohituretan eragitea xede duen ariketan murgiltzen has daitezen herritarrek. Bada, hari horri eutsi nahi izan diote Urnietan ere: iragan larunbatean, azaroaren 5ean, ekitaldia antolatu zuen Euskaraldiak, bi urteren ondoren, hizkuntza komunitatearentzat berezia den hitzordua hemen dela iragarzteko.

Hori horrela, euskarari estuki lotuta dauden Urnietako zenbait eragilek hartu zuten parte, eguerdian, Zubitxo plazan egindako ekitaldian. Lehenik eta behin, aurtengo edizioako kantua ko-reografiatu zuen Egape Dantza Taldeak: "Esan hitz bat". Jada, ohitura bihurtu da, aurreko edizioetan ere gauza bera egin baitute.

Eztarria berotu eta kantuan ipini zituen, gero, bertaratu ziren herritarrek Kantazaun elkarteari. Hori bai, herriko bertso-eskolak hitzordura espresuki egokitutako letra ipini zion "Egun da Santimamiña" abesti ezagunari.

## Koplak

*Hemen da Euskaraldia,  
ia hirugarren aldia.  
Belarriprest zein ahobiziak  
ongi etorriak dia.*

*Helduz Euskaraldiari,  
belarriak beti adi:  
ta ahobizi izango dena  
euskeraz ari ta ari.*

*Hitzez ekin eta ekin  
aitzakia bikain honekin,  
urte osoan berdin jarraitu  
ulertzen duten denekin.*

*Euskaraldian bero-bero  
hitz eginez egunero,  
Euskara ziur sustatuko da  
guk hori eginez gero.*

*Euskaraz bizi nahi dugu  
horixe gure helburu,  
urnietar danon hitz bakoitzakin  
lortuko dugu seguru.*

*Euskara guk bihotzean  
baita ere mingañean,  
beste hainbestez eta gehiago  
gabiltz mantendu nahiean.*

*Hau da aukera bikaña  
hartu nahi bazaio gaña,  
belarria prest eduki baño  
astindu behar da mingaña.*

*Mingaña astintze hori  
gustatzen zaigu danori.  
Bada euskaraz egin dezagun  
zuzentzen garen orori.*

*Belarriprest, ahobizi  
erresistentziak hautsi  
posible da ta gure herrian  
euskaraz nahi dugu bizi.*

Jende dezente erakarri zuen Euskaraldiaren proposamenak eguerdian plazaren bueltara. Hori horrela, gune ibilitaria

## Aurkezpen ekitaldia Urnietan



Kantuan aritu ziren, Zubitxo plazan. AIURRI

**Sentsibilizazioa** Bertso eskolako kideek "Egun da Santimamiña" kantari letra aldatu zitoten, Euskaraldiari lotutako koplak sortzeko. Kopla horiek herritarren artean banatu zituzten, elkarrekin abesteko.



Banderolak eta arropa erosteko aukera izan zen. AIURRI

**Sustapena** Txapak eskuratzeko aukera izatea ez ezik, Euskaraldiari lotutako materiala erosteko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek.

ipini zen, Euskaraldiko arropa eta materiala erosteko aukerarekin. Hori ez ezik, Euskaraldian parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera ere izan zuten. Baina, lasai, oraindik ere den-

bora baitago parte hartzeko; horretarako, euskara norekin eta zenbatetan erabili nahiko duten pentsatu beharko dute herritarrek: ahobizi edo belarriprest rolean aritzeko.



Urnietako  
udala



# Euskaraldiaren gunea Andoaingo Kale Nagusian

Jendaurreko arreta eskaintzen ari da Andoaingo Euskaraldia batzordea, horretarako propio bulegoa zabalik dauka. Izena emateko eta banderola erosteko aukera izango da, besteak beste

**Ainhoa Manterola** ANDOAIN

Andoainen 700 herritar baino gehiagok eman dute izena dagoeneko, eta, egunegun, izen-emateak hazten doaz. Euskaraldia posible egiteko ezinbestekoa da txapa soinean eramatea, hori izango baita herritarren identifikagarri: belarriprest ala ahobizi. Rola egoki aukeratzeak Euskaraldiko praktika ondo egitea dakar eta, beraz, arduraz eta konpromisoz aukeratu behar da ahobizi ala belarriprest izan.

**Egoitza Kale Nagusian**

Herritar asko dabilta Euskaraldiko txapak non jaso daitezkeen galdezka. Bada, Andoaingo Euskaraldiak ZASako lokala ireki du horretarako: Kale Nagusiko 33. zenbakian dago. Astegunetan, asteazkenetik ostiralera irekiko da; 17:30-20:00 bitarteko zabalik izango da. Azaroaren 12ko eta 17ko larunbatetan, aldiz, goizaldean egongo gara bertan, 11:30etatik 13:30era.



Kale Nagusian zabalik dago Euskaraldiaren egoitza. AIURRI

**Arropa eta banderolak salgai**

Izena emateko zein txapa jasotzeko aukera izango da. Horrez gain, Euskaraldiko produktuak daude salgai: jertseak, haur eta helduentzat kamisetak, poltsak, eta kaleak apaintzeko banderak.

Herritar batzuk jada hurbildu dira haien txapak jasotzera eta arropari begiratu bat ematera. Euskaraldiaren gaineko edozein informazio jaso nahiko bazenu ere, bertan eskainiko dituzte argibideak.



Andoaingo kideak biltzen ditu bere baitan Elektropottotte taldeak. ELEKTROPOTTOTTE

## Pintxopottotte, pintxo-pote berezia euskararen alde

Datorren ostegunean izango da, azaroak 17, Kale Nagusian eta Zumea plaza inguruetan

**Erredakzioa** ANDOAIN

Euskaraldia hasteko bezperan, azaroaren 17an, pintxo-pote berezia egingo da Andoainen. Musikak girotutako iluntzea izango da, Elektropottotte eta Burrunba taldeek parte hartuko baitute. Musikaz, pintxoaz eta edariak gozatzeko aukera izango da udalerriko honako tabernetan: Bastero, Hiru, Traiñerum, Irunberri, Txindoki, Gaztelutxo, Danena, Txalaka, Txitibar, 97, Amama Klaudia, Muga eta Txuribeltz. Haiei guztiei eskertza adierazi behar zaie, ekimenarekin bat egin dutelako. Aipatu-

tako taberna batzuetan ohikoa da pintxo-potea, baina, beste batzuetan, ez. Beraz, datorren ostegunean pintxopoteaz gozatzeko aukera izango da Danena, 97, Txuribeltz, Txindoki, Bastero edota Hiru tabernetan ere.


Burrunba taldea tabernaz taberna ariko da hitzordua girotzen, Hiru eta Basterotik hasita.

Taberna guztietara iritsiko dira musikaa doinuak. Iluntzeko 20:15ak aldera, Zumea plaza-ko tabernen kanpoaldean, Elektropottotte taldea ariko da. Sortu berria da taldea eta tartean dira Andoaingo musikariak.

## Larramendi Bazkunak 30 urte

Joan zen azaroaren 5ean hogeita hamar urte bete ziren Manuel Larramendi Kultur Bazkuna sortu zenetik. Beterrri-Aiztondon osatu du ibilbidea, euskararen eta euskal kulturaren defentsan. Denbora horretan guztia ekimen ugari abiarazi ditu, besteak beste, Aiurri hedabideak edota 111 Akademia. Aurreko larunbatean, efemeridearekin bat eginez, hainbat bazkide elkartu zen Goikoplazan. Taldeko argazkia atera ondoren, haietako batzuk Larramendiren jaioterria den Garagorri baserrira hurbildu ziren. Irteeratxo bazkariarekin amaitu zen, Mizpiradi sagardotegian.





Azaroaren 18an zuzenean ariko da Basteron, 19:00tan hasiko den emanaldian. TTAP

# “Bidea izan da musikari sentitzea”

**GARI KANTARIA**

Disko berria eskuan zuela, Hertzainak taldearen agerpena iragarri zen. Baina Garik bere ibilbideari eutsi nahi dio, eta Andoainen abiatuko da bere disko berriaren bira

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

**Zuzeneko disko bat grabatzea zer da, ausardia ariketa bat?**

Zuzeneko disko bat egitea, gaur egun, oso gauza erraza da alderatzen badugu 80ko hamarkadarekin. Hertzainak taldeko zuzeneko diskoaz, adibidez, hainbat datu jarriko nituzke mahai gainean: Trailer bat jarri genuen eszenarioaren atzean, bi grabagailu analogiko 48 pista grabatzeko, kanpoko teknikariak grabaketa egiteko... Sekulakoa zen. Egun, hori guztia erraztu da asko, digitalizazioarekin.

Ausardia ere behar da; gehienbat, erronka bat delako. Zuzenekoetan aritutakoak gara,

baina grabatzea beste gauza bat da. Eta erregistro hori fisikoki azaltzen baldin bada, formatu batean, nerbioak eta bestelakoak gehitu egiten dira. Baina erronka polita da; azkenean, konturatu ginen aspaldi ez genuela zuzeneko diskorik. Eta pena zela, taldea azkenengo urte hauek egonkortuta dagoelako. Zuzenekoetan eskaintzen dugun eta bilatzen ari garen sonoritatea nahiko finkatuta dago eta pena zen errepertorio hori guztia hor uztea. Denbora pasatzen da eta beste proiektu batzuetan sartzen zara, beste sonoritate batzuetan. Ideia aspaldikoa zen, baina noiz eta nola egin, hor

zuegoen koska. Aprobetxatu ditugu bizi izan ditugun azken bi urte hauek horretan jartzeko. **Grabazio estudio batean gehienetan azaltzen ez den energia eta indar hori biltzen du zuzenekoak.**

Kontraesan modukoa izan dut estudioan sartu izan naizen bakoitzean. Estudioan sartzera beti izan dut nolabaiteko jarra aldaketa bat. Ez naiz oso eroso sentitu inoiz. Estudioan kanpoko begiradan jartzen dut arreka, gehiegi. Eta horrek ez dit laguntzen. Abeslariok badiugu tara batzuk gure ahotsa entzuterakoan eta horrek ere, neurri batean edo bestean, etekin ezkorrak ekartzen dizkigu.

Eta zuzenekoak alderantziz, ez. Zuzenekoak da momentuan disfrutatzea, eta nik uste dut horretan ere azkenengo hamarkada honetan lortu dudala inperfekzioak ere maitatzea.

**Maldanberarekin lortu duzun sinbiosia gakoetakoa da zuzeneko grabaketari ekiteko garaian.**

Zuk jakin badakizu talde bat bideratzea, talde baten proiektua gauzatzea ez dela gauza txikia. Indar asko egin behar da, ordu asko sartu behar dira. Lan asko eta etekin gutxi, eta beti ziurgabetasunean murgilduta. Beraz, Bilbora etorri nintzenean orain dela hamalau-hamabost bat urte, abiatzeko sarea inguruan sortu behar nuen eta ordutik hona ikusi dudana da oso proposamen ona izan zela. Niri horrek bidea erraztu dit pila bat. Ez bakarrik erraztu, baizik eta indarrak gordezten dituzu hobeto. Guztia nik neuk kudeatzen dudanez, hainbat esparrutan indarra behar da eta indar horiek ezin dituzu hustu edozein aldapa txikitari, edozein esprint txikitari. Begiratu behar duzu haratago. Eta zentzu horretan taldeak eman didan babesa, ez bakarrik musikariak, baita teknikariak, espazio fisikoak... babes hori oso lagungarria izan da.

**Zuzeneko grabazioak zenbateraino baldintzatzen du frontman aritzeko garaian? Seguru nagoelako kontzertu guztietan etengabe buruan zenuela emanaldia grabatzen ari zirela.**

Ez dut horrelakorik sentitu. Lau kontzertu izan dira, laurak grabatuta. Gakoa lehen aipatu dudana inperfekzioarena gaingitzea izan da. Ez naiz gustura sentitzen gauzak musikalki herrenka dabiltzanean, baina gero, onartzen jakiten duzu, eta hori inportantea da horrelako proiektu bat gauzatzera.

Gitarra batera lotuta naiz. Eta ez da mozturik bat, bere inportantzia du musikalki eta sonoritate aldetik. Beraz, oso lotuta naiz. Bestalde, aspalditik nabil zuzenekoetan publikoarekin harreman emozional ezberdin bat lortu nahian. Taula gainera itsu-itsuan azaltzen zarenean

**GARI ETA MALDANBERA TALDEA BASTERON ARIKO DA ZUZENEAN, HILAREN 18AN**

publikoa ez da existitzen, zu bakarrik zaude. Zure egoa baino ez dago. Hori bazterten denean, hainbat aukera azaltzen dira mahai gainean; nire kasuan, inportantea izan da sonoritate baten atzean ibili eta sonoritate hori ahalik eta modu errazenean defendatzea. Horretarako, inportantea da publikoarekiko hartu-eman berezia sortzea. Kanta bat jotzea liturgia erraza da, baina liturgia horrek ez badu horrelako hartu-eman sakon bat, hutsune bat sentitzen dut. Inportantea izan da biratxo honetan, hartu-eman horietan, emozioa bilatzea. Eta emozioa bilatzerakoan zu zeu emozionala. Erronka hori da.

**Ez dugu orain arte aipatu eta baten batek galdetuko du honezkerok: zer entzungo dugu diskoan? Zure ibilbidearen errebasoa izango da? Kantu berriak tartekatuko dituzue?** Hertzainak desagertu aurretik hasi nintzen kanta batzuk idazten, eta, gutxi gorabehera, 22-23 kanta izan dira grabatu ditugunak. Grabazioak eman digu aukera taldearen eboluzioa zein den ikusteko. Hasierako kantuen eta gaur egungoen artean lotura ezberdinak daude. Sumatzen da aldaketa bat, eraldatze prozesu bat. Oso polita izan da ibilbide hori ikustea: non nengoen eta non naizen, zer nintzen eta gaur zer naizen. Musikari bezala prozesu polita izan da. **"Estutu" eta "Beste denbora batean" diskoak entzunez, zugan crooner joera hori areagotuz doala iruditzen zait. Crooner hitza ingelesezko to croon adizetik dator, eta kantatzeko modu leun eta xuxurlaria adierazten du. Ez dakit deskribapen horrekin identifikatzen zaren, baina nik hori bereziki nabaritzen dut zure kantaeran.**

Bai. Esango nizuke biluzte prozesu bat dela. Jorratu ditut musikari bezala horrelako esparru oso heterogeneoak: rocka, punka, tradizioari edo musika latinoari lotutakoa... Rocka ulertzen baldin badugu modu estandarrean, ni oso aspalditik oso urrutu nago. Hor dauden parametroak ez datoz bat nire parametroekin. Bidea izan da musikari sentitzea, eta ofizio horretan gustura sentitzea.

**Ibilbide oparoa egin duzun artistok baduzue aurkari bat, eta hori nostalgikoena da. Musikaren eta garaian pantaila igaro ez dutenena.**

(Isilik geratu da)



Disko berriarekin aurkezpen bira abiatuko du Euskal Herrian barrena, Andoaindik abiatuta. TTAP

#### Ataka estuan utzi zaitut?

Ez, ez. Ni ez naiz nostalgiaren oso laguna. Bat nator esan duzunarekin. Behin adin bat pasata, nostalgikoz inguratuta gaude. Sortzaile bezala ez dut oso ondo ulertzen. Orain dela gutxi, The Rolling Stones izan dira munduan barrena... Ez naiz eurekin sartuko, eurek egingo dute euren erreflexioa, baina ni ez nator bat horrekin. Nostalgia ez nau elikatzen. Beraz, ez naiz batere gustura sentitzen horrekin. Beste gauza bat da erretro-bisorean ikustea zer-nolako ibilbidea egin dudana eta horri buruz erreflexio batzuk egin; gehienbat, bihurtu berriaren zer egingo dudana erabakitzeak. Interesatzen zaidana haztea da.

#### Egiten ari zarena, eta datorrena.

Hori da, bestela ez du zentzurik. Elkarrizketan aipatu dituzun bi lan horietan, sonoritate bat eta bide bat egonkortu behar nuen.

#### Geroz eta azkarrago bizi gara. Sormenerako tartea noiz hartzen duzuz? Noiz aurkitzen duzue denbora gitarra hartu eta kantuei ekiteko?

Akaso, ni xelebrea naiz. Orain dela hogeitun urte, aukera izan nuen, lana gogotik eginda, drogak uzteko. Prozesu horretan bat-batean konturatu nintzen zein inportantea den egunerokoari eustea eta egunerokoa bizitzea. Ahalik eta modurik indartsuenean. Esperientzia latz horrek erakutsi zidan zenbaterainoko garrantzia duen horrek. Geroztik, nire helburu bakarra izan da egun bakoitzari heltzea, eta egun bakoitza aprobetxatzea. Ez iezadazu galdu nola egiten dudana, zeren ez dakit. Egin egiten dut. Ez dut pentsatzen askorik. Beti izaten dut, gainera, buruan inpresio bat: beti hasten ari naizela, eta horrek ez nau nekatzen. Ikasi dut indarrak gordetzea. Inportantea da inda-

rrak gordetzea, eta, zentzu horretan, eguneko ordu onenak goizeko orduak dira, eta ordu gorrienak azkenekoak. Beraz, saiatzen naiz aprobetxatzen lehenengo orduak sormenarekin duten gaiei heltzeko. Eta gero, negozioko ematen didana da oreka bat.

#### Lana zure heldulekuetako bat da, beraz.

Hori da. Ematen badidazu gaur aukera bihar jubilazioa jasotzeko, ziurrenik, ezezkua erantzungo nizuke. Ez naiz prest, eta ez naiz inoiz prest izango. Zergatik? Ez dakidalako hori egiten. Horrelako eremu zabal batean jartzen baldin banauzu, galdu egiten naiz. Esperientzia hori badut jasoa, eta ez dut lokatzetan sartu nahi. Behar dut bide estu bat. Hor hobeto mugitzen naiz. Egunerokoari etekina ateratzea lortu dut, eta harro naiz horrekin.



Iñaki Eizmendi 2019an, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan. AIURRI

## Ekimen sorta zabala Andoainen, datozen egunetan

Datozen egunetan askotariko hitzorduak antolatuko dira, Euskaraldiaren harira

#### Erredakzioa ANDOAIN

##### Azaroak 17, osteguna. 19:00. Pintxopote musikatua

Kalez kale eta tabernaz taberna, solasean aritzeko aukera izango da. Iluntzea girotzeko bi musika taldeko ariko dira, zuzenean.

##### Azaroak 18, ostirala. 19:00. Gari & Maldanbera

Hertzainak taldeko kantari ohiak zuzeneko disko berria aurkeztuko du Bastero Kulturagunean. Kultura lansailak eta Euskaraldiak elkarrekin antolatutako emanaldia izan da.

##### Azaroak 19, larunbata. 14:00. Kantu bazkaria

Batzokiak antolatuta, bazkaria eta kantaldia Euskaraldiarekin bat eginez. Iñaki Eizmendi kantariak abestuko du, Mikel Urdangarin Castrok lagunduta. Menua, 35 eurotan, honakoa da:

Txaka eta otarrainskaz betetako endibiak, ontto nahaskia, bakailaoa tomate eta piperrekin, ijito-beso bizkotxo, sagardoa, ardo edo ura, kafea. Datorren azaroaren 14ra bitarte izena emateko aukera dago. Hauexek moduak: Telefonoz (943 592 601); whatsapppe (635 746 490) eta e-postaz (andoaineajpnv@gipuzko.eus).

##### Abenduak 2, ostirala. 20:30. Bertso afaria

Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariak kantuan ariko dira Santa Krutz elkartean. Bertso afariaren prezioa 35 eurokoa da. Izena emateko bi moduak: Emailaz (santakruz@gmail.com), edo astelehenetan 19:00tatik aurrera elkartera hurbilduta.

##### Abenduak 4, larunbata. 19:00. Antzerkia

"Ez dok ero desentxufatuta" antzezlan, Bastero Kulturagunean.

"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaraldian bost argune sortuko ditugu".  
Nerea Ortiz

**HITZETZ EKITEKO GARAIA**

**EMAN IZENA!**  
euskaraldia.eus

**EUSKARALDIA**  
2022ko AZAROAREN 18ra  
ABENDUAREN 3ra



Jubenil mutilen (16-18 urte) Ganbara taldea. Zutik: Mikel Antonio, Danel Segurado, Jokin Lizaso, Borja Sánchez, Eric San Millan, Mikel Berasategi eta Josu Berasategi. Eserita: Adei Fernandez, Haritz Gomez, Aitor Aparicio, Aner Alkain eta Igor de Godos. **AJURRI**



Junior mutilen (15-16 urte) Ganbara taldea, Zutik: Unax Barbero, Urtzi Kortabitarte, Josu Gonzalez eta Xanet Manterola. Eserita, Gaizka Leal, Unai Parron, Iker Truchuelo, Asier Legorburu eta Beñat Portu. **AJURRI**

# Ezusteko atsegina, Ganbara taldearena

**SASKIBALOIA** Andoingo kirol-taldeen eta kirolari gehienek ekin diote denboraldi berriari, eta guztien artetik berrikuntzaren bat nabarmentzekotan, Ganbara Saskibaloia Kirol taldean emakumeen lehen taldea sortu izana da

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Horrenbestez, lau talde osatu ditu lehiarako Ganbara taldeak aurtengo denboraldiari begira: kadete mutilen (14-15 urte) Aterpe taldea; junior mutilen (15-16 urte) Ganbara taldea; jubenil mutilen (16-18 urte) Ganbara taldea; eta, infantil nesken (12-13 urte) Ganbara-Plastigaur taldea.

Azken hilabeteetan, aparteko eginahala egin dute nesken taldea osatu zedin, eta lanketa horretan buru-belarri aritu dira, besteak beste, jokalarien gurasoak diren Txaro Carrero eta Marialu Oiartzabal.

**Pozgarria da, benetan, albistea, Andoainen neska gazteek saskibaloian jokatzeko aukera edukitzea hemendik aurrera.**

**Marialu Oiartzabal:** Bai, jakina, eta guztien artean egindako saiakeraren emaitza pozgarria izan da. Gurasoek bultzada zuzena eman diogu ekimenari, baina ezinbestekoa izan da Ganbara Saskibaloia Kirol taldearekin

egindako elkarlana, edo eta hiru ikastetxeetako kirol arduradunen edo marka babeslearen laguntza. Txalogarria da taldea sortzeko ez ezik, etorkizunean aurrera egiteko guztien erakutsi duten implikazioa.

**Andoainen saskibaloian nesken talde bat izatearen premiari erantzun dio zuen ekimenak.**

**M. O.:** Argi dagoena da geure alaben eskariak mugitu gaituela; gainerakoan nekez sartuko ginen abentura honetan. Iaz eskola-kirola, beste kirolen artean, saskibaloian aritzeko aukera eman zieten Aita Larramendi ikastolan. Batzuek agudo ikusi zuten beren gogoko kirola zela saskibaloia. Kontua da "saskibaloian jokatzeko segi nahi nuke" esanez etorri zitzaizkigula alabak etxera. Geure aldetik, inguruan ze aukerak zeuden aztertzea jarri, eta ohartu ginen gertuena Lasarte-Oriako taldea zeukatela. Hortik jotzea pentsatua geneukan hasieran, baina,

denboraren poderioz, geure buruari bota genion galdera, desafio baten antzera: "Zergatik ez Andoainen taldea sortu, edo behintzat saiatu horretan?". Izan ere, kirolarekin gozatzen jarraitu nahi duten Andoingo neska gazteei futbola edo eskubaloia jartzen zaizkie aukeran, batik bat, eta gauzak zaldu egiten zaie eskema horretatik atera nahi dutenentzat.

**Txaro Carrero:** Ganbarako taldeko arduradunengana jo, eta geure nahia azaldu genien. Euren behin baino gehiagotan saiatu izan direla, baina, zoritxarrez, ezinezkoa egin zaiela aitortu ziguten. Nolanahi ere, enpeinuan segitzera animatu

**"HIRU ESKOLETAKO NESKAK TALDE BEREAN IKUSTEAK, EGUNDOKO POZA EMATEN DIGU"**

gintuzten, bidean, beren baliabide guztiak eskura jartzeko konpromisua azaltzearekin batera.

**Kontutuko al dizkiguzue kirol taldea osatzeko prozesuan emandako urratsak?**

**M. O.:** Maiatza aldera, herrian, kartelak zabaldu zituen Ganbarak, saskibaloia probatzeko gonbidapena zabalduz. Aldi berean, ahoz ahoko kanpainari ekin genion gurasoek eta baita alabek ere.

**T. C.:** Nahiz eta hasieran ikastolako gurasoen ekimena izan, herriko hiru ikastetxeetako jokalariek biltzea zen gure nahia, eta, alde horretatik, pozik gauderabat emaitzarekin. La Salle-Berrozpe, Ondarreta eta Aita Larramendiko neska talde berean ikusteak, egundoko satisfazioa ematen digu.

**M. O.:** Hamabost neska bildu dira taldera, eta espero ez zen arrakasta! Kopuru hori ikusita,

bi talde sortzea ere planteatu zen uneren batean, baina ez ezatatu egin zen. Izan ere, bide berria urratu da, eta horri eutsi behar zaio oraingoz. Emakumeen saskibaloirako aukera ireki zaie Andoingo neskatxek, eta errotu beharreko errealitatea behar du izan. Etorriko zaigu txanda aukera zabaltzeko adin eta kategoria desberdinetara; egitasmo horri bultzada emateko konpromisua hartuta daukagu.

**Marka babeslea aipatu duzue.**

**T. C.:** Bai, plastikozko ontzien eta enbalajeen fabrikazioan aritzen den Plastigaur enpresak babeslea lortu dugu. Andoainen errota enpresa sendoa nahi genuen edukitzea atzean laguntzaile komertzial gisa, eta Plastigaurreko finantza-zuzendariri planteatu genion egitasmoa. Berehala egin zuen bat proposamenarekin, eta eskertzekoa da hori.



Txaro Carrero eta Marialu Oiartzabal. **AJURRI**



Kadete mutilen (14-15 urte) Aterpe taldea. Zutik: Alvaro Vegas, Unax Etxabe, Victor Diaz (entrenatzailea), Ander Barquero eta Oihan Horrillo. Eserita: Iker Moreno, Xabat Vitoria, Aaron Diaz, Iraitz Guisado eta Iñigo Alcaide. AIURRI



Infantil nesken (12-13 urte) Ganbara-Plastigaur taldea. Zutik: Aitor Aparicio (entrenatzailea), Uxue Gonzalez, Izaro Olazabal, Noa Mota, Helene Mora, Olaia Ramos, Irune Redondo, Melisa Djon eta Amaia Ormazabal. Eserita: Alaitz Etxeberria, Iraia Etxeberria, Eider Venero, Ane Villarreal, Minerva Cajaraville, Sara Rodriguez, Naroa Serna eta Leire Patino.. AIURRI

**Jokalariak, egundoko ilusioarekin**

Helene Mora, Olaia Ramos, Alaitz Etxeberria eta Izaro Olazabal Ganbara-Plastigaur taldeko lau jokalaririk dira. Laukoteak hastanetik erakutsi zuen gogo saskibaloian jokatzeko, eskola-kirolak eskaintzen zien probaketaren ostean. Harrezkero, beste zenbait lagunekin batera, saskia daukan edozein jokalekutan, eta, ahal izan duten denbora libre guztietan, gero eta gogokoagoa dute kirolean lagunen artean gozatzea eta elkarrekin ikastea.

Berehala zerrendatu dituzte saskibaloia begiz jo izateko arrazoiak: “Kirol bizia eta dibertigarria da, eta, erabat kolektiboa denez, errazten du nork bere ardurak hartu ditzan, eta gainera, saskiratzeak guztien artean banatu daitezten”.

Egundoko ilusioarekin joan ohi direla entrenamenduetara



Helene Mora, Olaia Ramos, Alaitz Etxeberria eta Izaro Olazabal. AIURRI

aitortu dute lauek. “Beste ikasketetako lagun berriak egin ditugu; ederki moldatzen gara, eta, egunez egun, saskibaloian

sakontzen eta hobetzen ari gara antzematen dugu”.

Lehiaketa ofizialean ere eman dituzte lehen urratsak. Hiru

partidu jokatu dituzte, eta, adierazi dutenez, mentalizatuta daude gehiagi ez erreparatzeko kirol emaitzei. “Badakigu bi edo

hiru urtez jokatu izanaren abantaila daramatela ligako talde gehien-gehienek, eta ez hori bakarrik, gu baino urtebete zaharragoak direla zenbait aurkari. Horrexegatik, barneratuta daukagu ikastea eta eskarmen-tua poliki-poliki hartzea izango dela aurtengo denboraldirako gure eginberrara”.

Bestalde, partidu ofizialak ikustera etorri zaien jendetza-rekin eta harmailetan erakusten ari diren jarrerarekin harrিতa daude. “Etengabe animatzen gaituzte, gurasoek, batez ere, eta benetan eskertzen diegu babes hori”.

**"SASKIBALOIA KIROL BIZIA ETA DIBERTIGARRIA DA, ETA ERABAT KOLEKTIBOA"**

**etb**  
EUSKAL TELEBISIARTEA

**BINA KAKO**

ERREMONTEA TXAPELKETA 2022

**AZAROAK 12 LARUNBATA**  
**15:15ETIK AURRERA**

**1GO PARTIDUA 30 TANTO**  
SEGUROLA • BARRENETXEA IV  
ANSA II • LARRAÑAGA

**BINAKAKO PARTIDUA 40 TANTO**  
EZKURRA II • MARTIRENA  
ALDABE • AZPIROZ

**3. PARTIDUA 40 TANTO**  
GOIKOETXEA V • LABAKA  
ZALDUA II • ZUBIRI

**BINAKAKO** Orona  
Fundazioa

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 11

**ANDOAIN Erakusketa**

Udane Juaristi margolariaren erakusketa.

18:30, Bastero Kulturgunea.

**ANDOAIN Sari banaketa**

Martin Ugalde ipuin lehiaketa, 10-17 urtekoei zuzendutakoa.

Azken eguna: Azaroak 26.

**URNIETA Hitzaldia**

"Yoga eta kirola".

19:00, Kiroldegia.

**URNIETA Tailerra**

Autodefentsa feminista.

17:30-20:30, Lekaio.

## LARUNBATA 12

**URNIETA Tailerra**

Autodefentsa feminista.

10:30-14:30, Lekaio.

## IGANDEA 13

**URNIETA Antzerkia**

"Ez naiz inoiz Dublinen egon". Iñigo Aranburu, Iñigo Azpitarte, Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia.

19:00, Sarobe.

## OSTIRALA 18

**ANDOAIN Kontzertua**

Gari & Maldanbera, disko berriaren aurkezpena.

19:00, Bastero Kulturgunea.



Aitor Igiñitz andoaindarra.

**ANDOAIN Mendi Astea**

Euskalduna Mendigoizale elkartearen 57. Mendi Astea

Xabier Arzelus: "Humboldt: Euskal mendietatik ilargira".

Euskaldunaren egoitza.

Azaroak 14, astelehena. 19:00.

Santi Sierra eta Oscar Ruiz de Luzuriaga: "Alpes Berneses".

Euskaldunaren egoitza.

Azaroak 15, asteartea. 19:00.

Aitor Igiñitz: "Mundua arnastu nahian". Bastero.

Azaroak 16, asteazkena. 19:00.

Koke Lasa: "Aketegiko Mari, alpinismoa eta mitologia".

Euskaldunaren egoitza.

Azaroak 17, osteguna. 19:00.

Euskaldunako bazkideen urteko batzarra. Euskaldunaren egoitza.

Azaroak 19, larunbata. 17:00.

Mendi irteera eta babarrun jatea Goizuetan.

Azaroak 20, igandea.

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El cuarto pasajero**


Larunbata, 12.  
19:30, 22:00.  
Ig, 13. 19:30.  
Astelehena, 14.  
19:30, 22:00.

**Hopper, el pollo liebre**

Lar., 12. 17:00.  
Ig., 13. 17:00.

**Vasil**

Lar., 19. 19:30,  
22:00.  
Ig, 20. 19:30.  
Asti, 21. 19:30,  
22:00.



## SINOPSIS

**El cuarto pasajero**

**Zuzendaria:** Alex de la Iglesia. **Aktoreak:** Alberto San Juan, Blanca Suárez, Ernesto Alterio, Ruben Cortada, Carlos Areces. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia, road movie-a. **Iraupena:** 99 min.

## Alex de la Iglesiaren berriena

Julianek (Alberto San Juan), arazo ekonomikoak dituen 50 urteko dibortziatuak, aplikazio batera jotzen du autoa ezezagunekin partekatzeko. Eta, bereziki, hainbeste ez den norbaitekin: Lorenarekin (Blanca Suárez). Madrilera sarritan joaten den neska gazte bat. Hilabeteak daramatza kotxean eserleku finko bat duela, eta

azken aldian bihotzean ere bai. Julianek bidaia aprobetxatu nahi du berarekin zintzo jokatzeko, baina gainerako bidaiariak (Ernesto Alterio eta Ruben Cortada) aukeratzekoan egindako akats batek bidaiari kezagarri bat barne hartzen du, gertaeren norabidean erabateko aldaketa eragingo duena.

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzailak:** Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

**andoainDARRA**  
euskaraz



Aurreko ostiralean kalez kale ibili ziren, Urnietan. AIURRI

## Hiru greba egun, "hitzarmen duin baten alde"

Azaroaren 16an, 24an nahiz 29an. Hiru greba egun egingo dituzte Urnietako kiroldegiko langileak

### Erredakzioa URNIETA

Lan-baldintza duinak eskatu dituzte Urnietako kiroldegiko langileak: hamarkada bete daramate mantenu-lanetan, monitore gisa eta arretan dabiltzan langileak soldata berarekin, izoztuta. Kiroldegi-zerbitzua Bizkortzen enpresak kudeatzen du, azpikontratazioz. Aurreko asteko ostiralean, hilaren 4an, egin zuten hitzordua, iluntzean, beren egoeraren berri emateko eta, bide batez, lan-baldintzak salatzeke. Egindako mobilizazioaz gain, hiru greba egun ipini dituzte: azaroaren 16an, 24an nahiz 29an.

ELA sindikatuak adierazi duenez, orotara, hamalau langilek daramate kiroldegiko gestioa eta horietatik bik, soilik, dute lanaldi osoko kontratua; gainerakoak lanaldi partzialeko kontratua dute, eta "astean, hamai-ka orduko lanaldia duenik ere badago". 2012. urtetik, ez solda-

ta igoerarik, ez lan-baldintza hoberik, izoztuta; eta, langileek aditzera eman dutenez, daukaten hitzarmena "ez da sektorerako espresuki eginga dagoena. Enpresak hainbat kontzeptu ere ez dizkigu aplikatzen, adibidez, antzinasunarena". Hori ere auzitan ipini nahi dute.

### Bizi-baldintzak hobetuko dituen hitzarmen baten alde

Enpresarekin berarekin nahiz Urnietako Udalarekin jarri dira harremanetan, eta biekin bildu dira beren egoeraren berri emateko: "Bai batak eta bai besteak bertze alde batera begiratu dute".

Nazkatuta daudela aldarrikatu dute langileak, "gure lan eta bizi-baldintzak hobetuko dituen hitzarmen bat beharrezkoa ikusten dugu". Hala, aurrera begira, aipatu bezala, hiru greba egun ezarri dituzte: "Kiroldegiko langileak lan-hitzarmenaren alde!".



Elkarretaratzea egin zuten enpresaren kanpoaldean. AIURRI

## Ezbehar larrien aurkako elkarretaratzea Inquitex aurrean

Ivan Sevillano Vallejo lanean hil zen langilearen aldeko elkarretaratzean, lankideak eta senideak izan ziren

### Mikel Arberas ANDOAIN

Iragan urriaren 29an, Ivan Sevillano Vallejo langilea hil zen Andoaingo Antex Fibres enpresan. Enpresa Inquitex ezagunaren instalakuntzan dago. Ezbehar larri hori ez da egunotako bakarra izan. Egundak batzuk lehenago, beste langile bat larriki zauritu zen enpresa berean. Horiek horrela, ELA sindikatuak elkarretaratzea egin zuten iragan ostiralean, zeinak, gogor salatu zituen enpresaren jarrera pasiboa eta langileen lan-baldintzak: "Onartezina diren gertari horiek salatzeke eta patronalari langileen segurtasunaren aurrean etekin ekonomikoa lehenesteari utzi behar diola salatzeke egin dugu elkarretaratzea".

### Lan-heriotzak badu aurpegia

Lantegiaren aurrean egindako elkarretaratzean, hildako azken langilearen gaineko egoera hu-

manizatu nahi izan zuten bi izebek; gogoratu nahi izan dute izen-abizeneko pertsona zela eta bizitza duin eta zorionsua egin ahal izateko joaten zela lantokira, eta, hain zuzen, bertan topatu duela heriotza.

Izan ere, maiz, gehienetan, lantokian hildako langileak ez baitira anonimatuaren mugetatik irteten. Behin eta berriro zorigaitzez gertatzen den errituala bihurtu da lan munduan: "Langile bat hil da lan-istripuz" izaten da prentsako titular ez oso nabarmendua. Osalanek ikerketa irekitzen du, sindikatu eta lankideen elkarretaratzea egiten dute langileen odol-hustutzea salatzeke, eta, urteko lan munduko estatistika tragikoari zenbaki bat gehitzen zaio. Familiari eta adiskideei geratzen zaie hildakoaren oroitzapena, eta haren faltak eragindako sendaezina den mina.

## "Urnietako bikote batekin harremanetan jarri nahi dugu"

Aiurri.eus webgunera honako mezua iritsi da. Laguntza eske dabilta, Urnietako bikote baten bila: "Irailaren 6an nire aitak bizikleta istripua izan zuen Leitzako Leitzalarre mendian. Bere garrasiei erantzunez ondo bila zebillen Urnietako -daukagun datu bakarra da- bikote bat gerturatu zitzaion, eta berarekin egon ziren erreskate taldea agertu zen arte. Guretzat oso garrantzitsua da bikote honekin ematea eta gure eskerona adieraztea. Harremanetarako telefonoa: 659 327 197".

## Zorion-agurrak Aiurri

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) Zorion agurrak atalean

Whatsapp bidez: 619 16 35 37  
diseinua@aiurri.eus

Arantzibia 4-5, behea Andoain  
Telefonoa: 943 300 732

## ODOL-EMAILEAK



### HURRENGO HITZORDUAK

#### Azaroak 14, astelehena.

16:30-20:30.

ANDOAIN, Anbulatorioa. Hitzordua egundak berean hartzeko, 943 007 884 telefono zenbakira deitu.

#### Azaroak 21, astelehena.

16:30-20:30.

URNIETAN, Gaztelekuan. Hitzordua egundak berean hartzeko, 943 007 885 telefono zenbakira deitu.

## TELEFONO-ZENBAKIAK

### OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.

Urnietan: 943 006 680.

Osasun Aholkuak: 900 203 050.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Lasarte-Oriako Jalgi taberna alokatzen du Ttakun Kultur Elkarteak**

Interesa baduzu jarri gurekin harremanetan azaroaren 20ra arte

• Geltoki kalea 4, behea bulegoan  
• Tel: 943-37 14 48 (09:00-13:00 eta 16:00-18:00 (astelehen goiza eta ostiral arratsaldea izan ezik).  
• ttakun@ttakun.eus

**EUSKARALDIA**

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

**ANDOAIN**

**AZAROAK 17, OSTEGUNA**

**Pintxopottotte**

19:00tan hasita

**BURRUNBA**

**ELEKTROTARANGA**

**TABERNETAN**

- Bastero
- Hiru
- Trañerum
- Irunberri
- Txindoki
- Gaztelutxo
- Muga
- Amama Klaudia
- 97
- Txuri-beltz
- Txitibar
- Danena
- Txalaka



**EUSKARALDIA**

**ELEKTROPOTTOTTE**

**ELEKTROTARANGA**

**ZUMEA PLAZA, 20:30**



ANDOAINGO UDALA



andoaINDARRA  
euskaraz